



**2016KO ABUZTUAREN 29KO
UDALBATZAK EGINDAKO OHIKO
BILKURAREN AKTA.**

Ozaetan, Barrundiako udaletxeko bilkura aretoan, 2016ko abuztuaren 29an, 09:00ak direnean, ondoren aipatzen direnak bildu dira lehenengo deialdian, Afro Olabe Martínez de Albeniz Alkate jaunaren lehendakaritzapean eta Jon Txopitea Zugadi Idazkari Kontuhartzailearen laguntzarekin.

BERTARATUTAKO KIDEAK

Lehendakaria: Afro Olabe Martínez de Albeniz jauna.

Arkaitz Martínez de Albeniz Lopez de Subijana jauna.

Gorka Blanco Mata jauna.

Marije Gomez Pascual andrea.

Jose Antonio Perez de Arrilucea Madinabeitia jauna.

Idazkaria: Jon Txopitea Zugadi.

Quorum nahikoa dagoela egiaztatu ondoren, Lehendakari jaunak hasiera eman dio bilkurari eta Aztergaien Zerrendan agertzen diren gaiak jorratzeari ekin zaio:

**1.- AURRENEKO BATZARREN
AKTAK ONARTZEA:**

- .- 2015eko abenduaren 30ekoa.
- .- 2016ko otsailaren 26koa.
- .- 2016ko abuztuaren 1ekoa.

Aurreneko akta horiek aho batez onartzen dira.

2015eko abenduaren 15eko akta beren zuzenketarako mahai gainean uzten da,

**ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA
CELEBRADA POR EL
AYUNTAMIENTO-PLENO EL 29 DE
AGOSTO DE 2016.**

En Ozaeta, en el Salón de Plenos del Ayuntamiento de Barrundia, siendo las 09:00 horas del día 29 de agosto de 2016 se reúnen, en primera convocatoria, los miembros que a continuación se indican bajo la Presidencia del Sr. Alcalde, D. Afro Olabe Martínez de Albéniz, y asistidos del Secretario-Interventor municipal, D. Jon Txopitea Zugadi.

MIEMBROS ASISTENTES

Presidente: D. Afro Olabe Martínez de Albéniz.

D. Arkaitz Martínez de Albeniz Lopez de Subijana.

D. Gorka Blanco Mata.

D^a. Marije Gomez Pascual.

D. Jose Antonio Perez de Arrilucea Madinabeitia.

Secretario: Jon Txopitea Zugadi.

Comprobada la existencia de quórum suficiente al efecto el Sr. Presidente declara abierta la sesión, procediéndose al análisis de cada uno de los puntos que integran el Orden del Día:

**1.- APROBACION DE LAS ACTAS
DE LAS SESIONES ANTERIORES:**

- .- 30 de diciembre de 2015.
- .- 26 de febrero de 2016.
- .- 01 de agosto de 2016.

Se aprueban, por unanimidad.

El acta de 15 de diciembre de 2015 se



EAJ talde politikoak zehaztutako irizpenak sartzeko.

2.- KONTU OROKORRA. 2015.

IKUSIRIK: Kontuen Batzorde Bereziak, 2016ko uztailaren 1eko dataz, 2015eko ekitaldiko Kontu Orokorraren aldeko erizpena eman zuen.

GERTUA IZANIK: Agiri hori hamabost lan-egunetako epean jendaurreratu zen, beti ere Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo biharamunetik hasita (2016ko uztailaren 18ko 81. zenbakiduna).

GERTUA IZANIK: Agiria jendaurreratu zen epean ez zen inolako erreklamaziorik edo behaketarik aurkeztu.

KONTUAN HARTUZ: 3/2004 Foru-Arauak, otsailaren 9koa, Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, bere 62 artikulua xedatutakoaren arabera, toki erakundeek, kontabilitate-ekitaldia amaitutakoan, Kontu Orokorra egin behar dute; bertan ekonomiaren, finantzen, ondarearen eta aurrekontuaren arloetan egindako kudeaketan berri agertu behar dute. Osagai hauek izan behar ditu:

- a) Egoeraren balantzea.
- b) Galera eta Irabazien Kontua.
- c) Memoria; honek atal hauek izan behar ditu:
 1. Finantzaketa-taula.
 2. Zorraren egoera.
 3. Informazio-eranskina; hemen aurrekontuaren likidazioa eta Kontabilitate Orokorra erlazionatu behar dira.

deja sobre la Mesa al objeto de su corrección, según los términos definidos por la formación política EAJ.

2.- CUENTA GENERAL 2015.

VISTO: Que la Comisión Especial de Cuentas, en fecha 01 de julio de 2016, dictaminó favorablemente la Cuenta General correspondiente al ejercicio de 2015.

RESULTANDO: Que dicho expediente fue expuesto al público durante el plazo de quince días hábiles, contados a partir del siguiente a la publicación del anuncio en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Araba (nº81 de 18 de julio de 2016).

RESULTANDO: Que durante el plazo de exposición pública del expediente no se presentaron reclamaciones o sugerencias.

CONSIDERANDO: Que de conformidad con el art. 62 de la Norma Foral 2/2004, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Araba, las Entidades Locales, a la terminación del ejercicio presupuestario, formarán la Cuenta General que pondrá de manifiesto la gestión realizada en los aspectos económico, financiero, patrimonial y presupuestario, y que estará integrada por:

- a) Balance de situación.
- b) Cuenta de Pérdidas y Ganancias.
- c) Memoria, que incluirá:
 1. Cuadro de financiación.
 2. El estado de la deuda.
 3. Un anexo informativo que relacione la Liquidación del Presupuesto con la Contabilidad General.



d) Aurrekontuaren likidazioa.

Urteko orriek eranskin hauek izan behar dituzte:

1. Egiaztapenaren balantzea.
2. Kreditu-aldaketen egoera-orria.
3. Balioen egoeraren eta mugimenduen orria.

KONTUAN HARTUZ: Apirilaren 2ko, 7/85 Legearen, Toki Jaurpidearen Oinarriak Arauzkotzeko denaren 22.2.e) artikulua arabera, osoko-bilkurari dagozkion eskumenen artean honako hau dago: aurrekontuak onartzea eta aldatzea; eta udalaren eskumeneko gaitan gastuak xedatzea eta kontuak onartzea.

Udalbatzak, aho batez, zera erabakitzen du:

LEHENA.- Barrundiako Udalaren 2015 ekitaldiari dagokion Kontu Orokorra onartzea.

BIGARRENA.- Horrela onartutako Kontu Orokorraren zuritzea eta osatzen duen dokumentazio osoa bere ikusketarako Herri Kontuen Euskal Epaitegira eta Arabako Foru Aldundiaren Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Sailera igortzea.

3.- ENPLEGATU PUBLIKOEN ORDAINSARIAK. 2016

IKUSITA: Urriaren 29ko 48/2015 Legearen, Estatuko 2016ko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa, 19. artikuluan (sektore publikoko langileen gastuen inguruko jardura ekonomikoaren plangintza orokorrerako oinarriak eta koordinazioa) zera dago ezarrita:

Bat. Kapitulu honetan ezarritakoaren arabera, sektore publikoa honakoek

d) La liquidación del Presupuesto.

Los anexos a los Estados Anuales serán:

1. Balance de Comprobación.
2. Estado de Modificaciones de créditos.
3. Estado de Situación y Movimiento de Valores.

CONSIDERANDO: Que de conformidad con el art. 22.2.e) de la Ley 7/85, de 2 de abril, reguladora de Bases de Régimen Local, corresponden al Pleno municipal la aprobación y modificación de los presupuestos y la disposición de gastos en materia de su competencia y la aprobación de las cuentas.

El Ayuntamiento-Pleno, por unanimidad, acuerda:

PRIMERO.- Aprobar la Cuenta General del Ayuntamiento de Barrundia, correspondiente al ejercicio presupuestario 2015.

SEGUNDO.- Rendir la Cuenta General así aprobada y toda la documentación que la integra a la fiscalización del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas y al Departamento de Desarrollo Económico y Equilibrio Territorial de la Diputación Foral de Araba.

3.- RETRIBUCIONES EMPLEADOS PÚBLICOS 2016.

VISTO: Que en el art. 19 (Bases y coordinación de la planificación general de la actividad económica en materia de gastos de personal al servicio del sector público) de la Ley 48/2015, de 29 de octubre, de Presupuestos Generales del Estado 2016, se establece que:

Uno. A efectos de lo establecido en el presente Capítulo, constituyen el



osatzen dute:

.....

d) Tokiko korporazioak eta horien mendeko organismoak.

.....

Bi. 2016an sektore publikoko langileen lansariet ezin izango dute ehuneko 1eko igoera globala baino igoera handiagoa izan, 2015eko abenduaren 31koekin alderatuta, konparatzen diren bi aldien homogeneotasunaren inguruan, bai langileen antzintasunari dagokionean, baita kopuruari dagokionean ere.

.....

AINTZAT HARTU DA: Estatuko 2016rako Aurrekontu Orokorren Legearen arabera zera ezartzen da:

.- Soldata, hirurtekoak eta destino-osagarriak automatikoki aplikatzen dira.

.- Produktibitatearen gaineko osagarriari eta espezifikoiari dagokienez, Korporazioaren irizpidearen arabera izango da horren igoera eta portzentajea adostea, betiere ez badu Estatuko 2016rako Aurrekontu Orokorren Legeak adostutako %1a gainditzen, gehienez ere.

AINTZAT HARTU DA: Tokiko Erregimeneko Oinarriak arautzeko Legearen 22.2.e) artikuluan ezarritakoaren arabera, Udaltzari dagokiola:

.- Lan-taldea eta lanpostuen zerrenda onartzea, funtzionarioen lansari osagarri finkoen eta aldizkako zenbatekoa eta aldi baterako langile kopurua finkatzea.

sector público:

.....

d) Las Corporaciones locales y Organismos de ellas dependientes.

.....

Dos. En el año 2016, las retribuciones del personal al servicio del sector público no podrán experimentar un incremento global superior al 1 por ciento respecto a las vigentes a 31 de diciembre de 2015, en terminos de homogeneidad para los dos periodos de la comparación, tanto por lo que respecta a efectivos de personal como a la antigüedad del mismo.

.....

CONSIDERANDO: Que de conformidad con la Ley de Presupuestos Generales del Estado para el ejercicio 2016 se establece que:

.- Sueldo, trienios y complemento de destino, se aplica automáticamente.

.- Respecto al complemento específico y de productividad queda a criterio de la Corporación acordar el incremento y el porcentaje el mismo, siempre y cuando no supere el 1% que la Ley de Presupuestos Generales del Estado del año 2016 señala como máximo.

CONSIDERANDO: Que de conformidad con el art. 22.2.e) de la Ley reguladora de Bases de Régimen Local, corresponde al Pleno:

.- La aprobación de la plantilla de personal y de la relación de puestos de trabajo, la fijación de la cuantía de las retribuciones complementarias fijas y periódicas de los funcionarios y el número y régimen del personal



Osoko Bilkurak, aho batez, honakoak ventual.
adostu ditu:

El Ayuntamiento-Pleno, por
unaninidad, acuerda:

LEHENENGOA.- 2016rako Aurrekontu Orokorren Legean soldata, hiruteko eta destino-osagarrien ganean aurreikusitako igoeraren aplikazio automatikoaren berri jasotzea, %1eko igoera, 2015eko zenbatekoen ganean.

PRIMERO.- Tomar conocimiento de la aplicación automática del incremento de retribuciones del personal del sector público previstas en la Ley de Presupuestos Generales 2016 al sueldo, trienios y complemento de destino con un 1% respecto de los del año 2015.

BIGARRENA.- 2015eko ordainsarien gaineko %1aren igoera ontzat ematea, osagarri espezifikoari eta produktibitate osagarriari dagokienez.

SEGUNDO.- Aprobar la subida del 1% respecto de las remuneraciones del 2015 de los conceptos referentes al complemento específico y al complemento de productividad.

HIRUGARRENA.- Ebazpen horren berri ematea GESOC aholkularitzari eta udal langile publikoei.

TERCERO.- Notificar la presente resolución a la asesoría laboral GESOC y a los empleados públicos municipales.

4.- ARABAKO FORU ALDUNDIAREN ETA BARRUNDIAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGA ETA ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA IKUSKATZEARI BURUZKOA.

4.- CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA DIPUTACIÓN FORAL DE ARABA Y EL AYUNTAMIENTO DE BARRUNDIA EN MATERIA DE INSPECCIÓN DEL IMPUESTO SOBRE ACTIVIDADES ECONÓMICAS Y DEL IMPUESTO SOBRE CONSTRUCCIONES, INSTALACIONES Y OBRAS.

IKUSIRIK: Udalbatzak, 2016ko ekainaren 10eko dataz egindako batzarrean, Arabako Foru Aldundiaren eta Barrundiako Udalaren artean lankidetzaz hitzarmena hasieraz onartu zuen Jarduera Ekonomikoei eta Eraikuntza, Instalazio eta Obrei dagokien zergak ikuskatzeko helburuetarako.

VISTO: Que el Ayuntamiento-Pleno, en sesión celebrada en fecha 10 de junio de 2016, aprobó inicialmente el convenio de colaboración entre la Diputación Foral de Araba y el Ayuntamiento de Barrundia para la inspección de tributos correspondientes al de Actividades Económicas y al de Construcciones, Instalaciones y Obras.

GERTUA IZANIK: Agiriari dagokion iragarkia hogei lanegunez 2016ko uztailaren 8ko Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialeko 77.

RESULTANDO: Que el anuncio relativo al expediente fue publicado durante el plazo de veinte días hábiles



zenbakian eta Udaleko Web orrian argitaratu zen balizko behaketak aurkezteko.

GERTUA IZANIK: Aipatutako epean ez ziren behaketarik aurkeztu.

GERTUA IZANIK: Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatutak, 2016ko ekainaren 29ko datako idazkiaren bidez (2016ko uztailaren 4ko 1.227 zenb. Sarrera-erregistroa), zera azaltzen du: hasieran bidalitako hitzarmena (goiko gaiari buruz) eta Arabako Foru Aldundiak behin betiko onartu duena desberdinak dira, horrela aldatu egin da finantza sistema jarduera ekonomikoen gaineko zergaren ikuskapenerako hitzarmenean, Arabako Foru Aldundiak bere gain harturiko eta udalek ordaindu beharreko zerga ikuskapenaren kostuari dagokionez; hain zuzen ere, %40tik %35era murriztu da ikuskapen prozeduren ondorioz likidatzen eta kobratzen diren zerga, zor eta zehapenen zenbatekoen finantzaketa sistema. Era berean, arlo horretan bertan, zehaztu da ezen lehengo konpentsazio sistema berraztertu ahal izango dela hitzarmena benetan aplikatzen hasten denetik urtebete igaro ondoren.

Gainera, diru-kopuruen sarreei buruz hauexek gehitzen da:

“Ondorio horietarako, Udalak Arabako Foru Aldundiari zerrenda bat bidaliko dio, non banan-banan ageriko baitira seihilekoko likidazioaren xedez kobraturiko zor eta zehapen guztiak”.

KONTUAN HARTUZ: Hitzarmenean aipatutako hiru zuzenketa horiek sartzea bidezkoa izanik.

en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Araba nº 77 de 8 de julio de 2016 y en la página Web municipal al objeto de la presentación de posibles alegaciones.

RESULTANDO: Que durante el citado plazo no se presentaron alegaciones.

RESULTANDO: Que el Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos de la Diputación Foral de Araba, mediante instancia de fecha 29 de junio de 2016 (registro de entrada nº 1227 de 4 de julio de 2016), señala que el modelo de convenio arriba meritado e inicialmente remitido es diferente del aprobado definitivamente por la Diputación Foral de Araba, así, se modifica el sistema de financiación en el sentido de que la compensación a satisfacer por el Ayuntamiento por el coste implicado por la inspección tributaria asumida por la Diputación Foral se reduce del 40% al 35%; en igual sentido, se ha especificado que el sistema de compensación anterior podrá ser objeto de revisión una vez transcurrido un año desde la aplicación efectiva del Convenio.

Además, se añade lo siguiente en relación al ingreso de las cantidades:

“A estos efectos el Ayuntamiento remitirá a la Diputación Foral de Araba una relación en la que conste de forma individualizada cada una de las deudas y sanciones cobradas objeto de la liquidación semestral”.

CONSIDERANDO: Que cabe la introducción en el Convenio de las tres



Udalbatzak, aho batez, zera erabakitzen du:

LEHENA.- Arabako Foru Aldundiaren eta Barrundiako Udalaren artean Jarduera Ekonomikoei eta Eraikuntza, Instalazio eta Obrei dagokien zergak ikuskatzeko helburuetarako lankidetzaz hitzarmenean Foru Erakundeak proposatutako hiru zuzenketa ofizioz sartzea onartzea.

Zuzenketa horiek erabaki honen aurrekarietan zehaztutakoak dira.

BIGARRENA.- Lehenengoko apartatuan zehaztutako lankidetzaz hitzarmena behin betiko onartzea, hitzez hitz honako hau dio:

“ARABAKO FORU ALDUNDIAREN ETA BARRUNDIAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZAZ HITZARMENA, JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGA ETA ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA IKUSKATZEARI BURUZKOA.

Gasteiz, __ (e)ko _____ aren __ (a)

BILDUTAKOAK

Alde batetik, Jose Luis Cimiano Ruiz jauna, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua den aldetik, Arabako Foru Aldundiaren izenean (aurrerantzean AFA) eta betiere Diputatuen Kontseiluak emandako baimenaren bidez.

Beste aldetik, Afro Olabe Martinez de Albeniz jaunak, alkatea den aldetik eta Barrundiako Udalaren izenean (aurrerantzean udala).

correcciones descritas.

El Ayuntamiento-Pleno, por unanimidad, acuerda:

PRIMERO.- Aprobar de oficio la introducción de las tres correcciones propuestas por la Institución Foral en el convenio de colaboración entre la Diputación Foral de Araba y el Ayuntamiento de Barrundia para la inspección de tributos correspondientes al de Actividades Económicas y al de Construcciones, Instalaciones y Obras.

Dichas correcciones han sido determinadas en los antecedentes de esta resolución.

SEGUNDO.- Aprobar definitivamente el convenio de colaboración señalado en el apartado primero, que textualmente dice:

“CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA Y EL AYUNTAMIENTO DE BARRUNDIA EN MATERIA DE INSPECCION DEL IMPUESTO SOBRE ACTIVIDADES ECONOMICAS Y DEL IMPUESTO SOBRE CONSTRUCCIONES, INSTALACIONES Y OBRAS.

En Vitoria-Gasteiz, a.....

REUNIDOS

De una parte, D. José Luis Cimiano Ruiz, en su calidad de Diputado Foral de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, en representación de la Diputación Foral de Álava (en adelante DFA), y en virtud de autorización otorgada por el Consejo de Diputados.

De otra parte, D. Afro Olabe Martinez de Albeniz, en su calidad de Alcalde, y en representación del Ayuntamiento de Barrundia (en adelante Ayuntamiento).

Reconociéndose ambas partes la



Lankidetza hitzarmen hau izenpetzeko legezko gaitasun nahikoa aitortu diote alde biek elkarri; hortaz, hau

capacidad legal necesaria para formalizar el presente Convenio de colaboración,

ADIERAZTEN DUTE:

1. Herri administrazioen arteko harremanak gidatu behar dituen elkarrekiko lankidetza kontuan hartu behar dute bai AFAk bai Barrundiako Udalak; marko horren barnean, beraz, egokitzat jotzen dute, biei dagozkien zereginak betetzeko, lankidetzan jardutea Barrundiako Udalaren jarduera ekonomikoen gaineko zerga (JEZ) eta eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ikuskatzeko eginkizunean.

Herri administrazioen arteko lankidetza printzipioa, besteak beste, zenbait arauk jasotzen dute, hala nola azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearenak. Izan ere, lege horrek 4.1.d) artikuluan ezartzen du administrazioen arteko harremanak gidatu behar duten printzipioetariko bat dela erakunde leialtasuna. Horren bidez, bakoitzaren eremuan beste administrazioek eman ditzaketen lankidetza eta laguntza aktiboak eskaini behar dituzte, bakoitzaren eskumenak eraginkortasunez baliatu ahal izateko.

2. Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubideko oinarrienak, 106.3. artikuluan ezartzen du toki erakundeak eskudunak direla euren zergak kudeatzeko, biltzeko eta ikuskatzeko, baina atea zabalik uzten du eskumen horiek beste administrazio batzuek bete ditzaten lankidetza formulak erabiliz.

Lankidetza horren ezaugarri nagusia da borondatezkoa dela, eta, hori bideratzeko, behar diren administrazio partzuergo edo

EXPONEN

1. En el marco de la colaboración mutua que debe presidir las relaciones entre las Administraciones Públicas, tanto la DFA, como el Ayuntamiento de Barrundia, consideran de interés para el cumplimiento de las funciones que tienen encomendadas, colaborar en materia de inspección del Impuesto sobre Actividades Económicas (IAE) y del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras (ICIO) propios del Ayuntamiento de Barrundia.

El principio de colaboración entre las diferentes Administraciones Públicas se encuentra recogido, entre otras normas, en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, que establece en su artículo 4.1.d) que uno de los principios que debe presidir las relaciones entre las Administraciones Públicas es el de lealtad institucional, en cuya virtud deberán *"prestar, en el ámbito propio, la cooperación y asistencia activas que las otras Administraciones pudieran recabar para el eficaz ejercicio de sus competencias"*.

2. El artículo 106.3 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local, establece que las Entidades Locales son competentes para la gestión, recaudación e inspección de sus tributos propios, pero deja abierta la puerta a que dichas competencias sean ejercidas por otras Administraciones a través de fórmulas de colaboración.

La característica principal de esta colaboración es su carácter voluntario pudiendo tener lugar, en todo caso, mediante los consorcios o los convenios



hitzarmenak izenpetu behar direla. Formularik egokiena hitzarmena da; izan ere, partzuergo bat bakar-bakarrik era daiteke, baldin eta lankidetzaz ezin bada hitzarmen baten bidez gauzatu eta efizientzia ekonomikoari begira horrek baliabide ekonomikoaren ezarpen efizienteagoa badakar.

3. Zergei dagokienez, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzazko Errege Dekretuak, Toki Ogasunen Legearen testu bateratua onesten duenak, 8. artikuluan ezartzen du herri administrazioen arteko lankidetzaz, toki zergak eta toki erakundearen zuzenbide publikoko gainerako sarrerak kudeatzeko, likidatzeko, ikuskatzeko eta biltzeko maila guztietan.

Toki zergak eta toki erakundearen zuzenbide publikoko gainerako sarrerak kudeatzeko, likidatzeko, ikuskatzeko eta biltzeko lankidetzaz formulak ezarri dituzten erakundeek lankidetzaz jardueraz hori garatu ahal izango dute lurralde eremu osoan eta beste toki erakunde batzuetakoan ere, nahiz eta horiekin lankidetzaz formularik ezarri ez. Hori hala izango da ikuskapen eta betearazte bilketan izan ezik; izan ere, jardun horiek autonomia erkidegoko organo eskudunek bete beharko dituzte haren lurralde eremuan egin behar direnean, edo estatuaren organo eskudunek beste zenbaitetan.

Zentzu horretan, uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak, toki ogasunak arautzen dituenak, 8. artikuluan men egiten dio udal erakundearen eta Foru Aldundiaren arteko lankidetzaz, toki zergak eta toki erakundearen zuzenbide publikoko gainerako sarrerak kudeatzeko, likidatzeko, ikuskatzeko eta biltzeko zereginari dagokionez, horretarako

administrativos que suscriban. La fórmula por excelencia será el convenio dado que la constitución de un consorcio solo podrá tener lugar cuando la cooperación no pueda formalizarse a través de un convenio y siempre que, en términos de eficiencia económica, permita una asignación más eficiente de los recursos económicos.

3. En el ámbito tributario, el Real Decreto Legislativo 2/2004, de 5 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley Reguladora de las Haciendas Locales, establece en su artículo 8, la colaboración entre Administraciones públicas en todos los órdenes de gestión, liquidación, inspección y recaudación de los tributos locales y demás ingresos de derecho público de las Entidades Locales.

Aquellas Entidades que hayan establecido fórmulas de colaboración con Entidades Locales para la gestión, liquidación, inspección y recaudación de los tributos y demás ingresos de derecho público propios de dichas Entidades Locales, podrán desarrollar tal actividad colaboradora en todo su ámbito territorial e incluso en el de otras Entidades Locales con las que no hayan establecido fórmula de colaboración alguna. Salvo en materia de inspección y recaudación ejecutiva que serán practicadas por los órganos competentes de la correspondiente Comunidad Autónoma cuando deban realizarse en el ámbito territorial de ésta, y por los órganos competentes del Estado en otro caso.

En el mismo sentido, el artículo 8 de la Norma Foral 41/1989, de 19 de julio, reguladora de las Haciendas Locales, también se refiere a la colaboración entre las Entidades municipales y la Diputación Foral, en la gestión, liquidación, inspección y recaudación de los tributos locales y demás ingresos de derecho público de las Entidades Locales, a través



behar diren hitzarmenak sinatuz.

Beste alde batetik, abenduaren 17ko 58/2003 Legeak, zergei buruzkoak, 5. artikuluan 5. atalean ezartzen du lankidetzak formulak finkatu ahal izango direla zergak aplikatzeko, bai toki erakundeen artean bai horien eta estatuaren artean.

Era berean, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak, Arabako zergei buruzkoak, 5.3. artikuluan ahalbidetzen du zergak aplikatzeko lankidetzak formulak ezartzea, bai toki erakundeen artean bai horien eta Foru Aldundiaren artean.

4. Hitzarmen hau aplikatzeko eremuaren lankidetzak honakoak errespetatu beharko ditu: herritarren ohorerako eskubidea eta norbere eta familiaren intimitatea izateko eskubidea –Espainiako Konstituzioko 18. artikuluko 1. eta 4. paragrafoak– eta datu pertsonalen babeserako eskubidea, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, datu pertsonalak babestekoak, ezarritakoaren arabera.

5. Azaldutako marko juridikoan eta udalari emandako eskumenak kudeatzeko eraginkortasun arrazoiak tarteko, AFaren lankidetzak justifikatzen da hitzarmen honen bidez, betiere udalaren jardura ekonomikoen gaineko zerga eta eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ikuskatzeko zereginari dagokionez.

Hitzarmen honek onesten duen lankidetzaren xedea da eraginkortasuna hobetzea zerga ikuskapenaren arloan.

Horren guztiaren ondorioz, lankidetzak hori bidezkoa denez gero, bi alderdiek erabakitzen dute lankidetzak hitzarmen hau izenpetzea. Hitzarmenak honako klausulak izango ditu:

de la suscripción de convenios.

Por su parte, el artículo 5 de la Ley 58/2003, de 17 de diciembre, General Tributaria, establece en su apartado 5 que podrán establecerse fórmulas de colaboración para la aplicación de los tributos entre las Entidades Locales, así como entre éstas y el Estado.

Igualmente el artículo 5.3 de la Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero, General Tributaria de Álava, posibilita el establecimiento de fórmulas de colaboración para la aplicación de los tributos entre las Entidades Locales, así como entre éstas y la Diputación Foral.

4. La colaboración en el ámbito de aplicación de este convenio deberá respetar los derechos fundamentales al honor y a la intimidad personal y familiar de los ciudadanos y a la protección de datos personales, que prescriben los apartados 1 y 4 del artículo 18 de la Constitución Española, en los términos previstos en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal.

5. El marco jurídico expuesto y razones de eficacia en la gestión de las competencias atribuidas al Ayuntamiento justifican la colaboración, mediante el presente convenio, de la DFA en la inspección del Impuesto sobre Actividades Económicas y del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras del Ayuntamiento.

La colaboración que se aprueba en este convenio tiene como objetivo mejorar la eficacia en materia de inspección tributaria.

En consecuencia, siendo procedente la referida colaboración, ambas partes acuerdan celebrar el presente convenio de colaboración que se regirá por las siguientes



KLAUSULAK

Lehena. Gaia eta xedea.

Hitzarmen honen gaia da AFAREN lankidetzazuzentzeko baldintzak ezartzea udalaren jardura ekonomikoen gaineko zerga eta eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ikuskatzeko zereginean, betiere uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak, toki ogasunenak, 8. artikuluan ezarritakoaren babespean eta jarraian ezartzen diren erdiespena, edukia, baldintzak eta indarraldia aintzat hartuz.

AFAK bideratutako lankidetzaren xedea izango da udalak kudeatzen dituen zerga horiek ikuskatzea eta haien efikazia hobetzea.

Bigarrena. Lankidetzaren eremu materiala.

Lankidetzak honakoak jorratuko ditu:

- Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren ikuskapena.
- Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren ikuskapena.

Hirugarrena. Lankidetzaren osatzen duten zereginek.

AFAk bere baliabide pertsonal eta materialak baliatuz eta udal bakoitzari eska diezaiokeen informazioa erabiliz, zerga ikuskapena dakarten honako zeregin hauek beteko ditu:

1. Udalarekin koordinatuz, ikuskapen planak prestatuko ditu hitzarmen honek zehaztutako ikuskapen xedearen gain inguruan.
2. Subjektu pasiboek aurkeztutako aitorpen eta autoliquidazioen zinezkotasuna eta zehaztasuna

CLAÚSULAS

Primera. Objeto y finalidad.

El presente convenio tiene por objeto establecer las condiciones por las que se debe regir la colaboración de la DFA en la inspección del Impuesto sobre Actividades Económicas y del Impuesto sobre Construcciones Instalaciones y Obras propios del Ayuntamiento al amparo de lo establecido en el artículo 8 de la Norma Foral 41/1989, de 19 de julio, reguladora de las Haciendas Locales, con el alcance, contenido, condiciones y vigencia que se establecen seguidamente.

La colaboración procedente de la DFA tendrá por finalidad facilitar la inspección de los citados tributos que gestiona el Ayuntamiento, así como mejorar su eficacia.

Segunda. Ámbito material de la colaboración.

La colaboración se extenderá a las siguientes materias:

- Inspección del Impuesto sobre Actividades Económicas.
- Inspección del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras.

Tercera. Funciones que integran la colaboración.

La DFA realizará, con sus propios medios, personales y materiales, y con la información que estime necesaria solicitar a cada Ayuntamiento, las siguientes funciones que implica la inspección tributaria:

1. La elaboración, en coordinación con el Ayuntamiento, de los Planes de Inspección referidos a las materias objeto de colaboración a que se refiere este Convenio.
2. La comprobación de la veracidad y exactitud de las declaraciones y autoliquidaciones presentadas por los



egiaztatuko ditu.

3. Zerga onurak edo pizgarriak eta, hala badagokio, zerga itzulketak lortzeko eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatuko du; halaber, zerga araubide bereziak aplikatzeko behar diren baldintzak betetzen direla ziurtatuko du.

4. Subjektu pasiboek aitortzen ez dituzten zerga egitateak ikertuko ditu.

5. Zerga betebeharrak zehazteko beharrezko elementuen balioa egiaztatuko du.

6. Jarduleek aurrera eramandako egiaztapen eta ikerketa jarduketan eginbideen bitartezko dokumentazioa prestatuko du.

7. Adostasun eta desadostasunari buruzko aktak prestatuko ditu, egiaztapen eta ikerketa jarduketei dagokienez.

8. Desadostasunari buruzko aktetan manuzko txostenak prestatuko ditu.

9. Likidazioak prestatu eta jakinaraziko ditu eta, hala badagokio, zor ez diren sarrerak itzuliko ditu, egiaztapen eta ikerketa jarduketan ondorioz.

10. Informazioa eskuratzeko jarduketak egingo ditu, egiaztapen eta ikerketa jarduketan ondorioz.

11. Udalari aholkularitza eman eta beharrezko jakinarazpenak egingo dizkio, zerga ikuskapenaren markoan.

12. Zergadunei aholkularitza eman eta beharrezko jakinarazpenak egingo dizkie, zerga ikuskapenaren markoan.

13. Zergak egiaztatzeke eta ikertzeko egintzen kontra aurkeztutako

sujetos pasivos.

3. La comprobación del cumplimiento de los requisitos exigidos para la obtención de beneficios o incentivos fiscales y, en su caso, devoluciones tributarias, así como de la concurrencia de las condiciones precisas para la aplicación, en su caso, de regímenes tributarios especiales.

4. La investigación de los hechos imponibles no declarados por los sujetos pasivos.

5. La comprobación del valor de los elementos necesarios para la determinación de las obligaciones tributarias.

6. La documentación mediante diligencias de las actuaciones de comprobación e investigación realizada por los actuarios.

7. La formalización de las actas de conformidad y de disconformidad en relación con las actuaciones de comprobación e investigación.

8. La elaboración de informes preceptivos en las actas de disconformidad.

9. La elaboración y notificación de las liquidaciones y, en su caso, devolución de ingresos indebidos fruto de las actuaciones de comprobación e investigación.

10. La realización de actuaciones de obtención de información como consecuencia de las actuaciones de comprobación e investigación.

11. El asesoramiento e informe al Ayuntamiento en el marco de la inspección tributaria.

12. Información y asesoramiento a las personas obligadas tributarias en el marco de la inspección tributaria.

13. La resolución de recursos fruto de



erreklamazioen ondorioz jar daitezkeen errekursoak ebatziko ditu.

14. Zigor espedienteak hasi, izapidetu eta ebatziko ditu, ikuskapen, likidazio eta jakinarazpen jarduketan ondorioz.

Laugarrena. Eremu pertsonala, lurralde eremua eta denbora eremua.

Lankidetzak beren-beregi men egiten die arestian zerrendatutako ahalmen guztiei eta zergadun guztiei.

AFAk ahalmenak baliatu ahalko ditu bere lurralde osoan, bai eta beste toki erakunde batzuenan, haiekin lankidetzaz hitzarmenik sinatu badu.

Lankidetzak preskribaturik ez dauden ekitaldi guztiei eragiten die. Errebokazioa jakinarazpen fede emaile bidez egin beharko da gutxienez ekitaldia amaitu (abenduaren 31) baino hilabete lehenago; errebokazio horrek ekitaldi guztiei eragingo die eta eraginak izango ditu jakinarazpenaren hurrengo urteko urtarrilaren 1etik aurrera.

Bosgarrena. Arautegia.

AFArekin hitzartutako zergen aplikazioa honako legerian ezarritakoari lotuko zaio:

- a. Uztailaren 19ko 41/1989 Foru Araua, toki ogasunak arautzen dituena.
- b. Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Araua, Arabako zergei buruzkoa.
- c. Udalak onetsitako zerga ordenantzak.
- d. Azaroaren 26ko 30/1992 Legea, herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearena.

reclamaciones contra actos de comprobación e investigación tributaria.

14. La incoación, instrucción y resolución de expedientes sancionadores como consecuencia de las actuaciones de inspección, así como su liquidación y notificación.

Cuarta. Ámbito personal, territorial y temporal.

La colaboración se refiere expresamente a todas y cada una de las facultades anteriormente enumeradas, y a todas las personas contribuyentes.

La DFA podrá ejercer las facultades en todo su ámbito territorial, e incluso en el de otras entidades locales con las que no haya firmado convenios de colaboración.

La colaboración afecta a todos los ejercicios que no se encuentren prescritos. La revocación, que deberá realizarse mediante comunicación fehaciente con al menos un mes de antelación a la fecha que finalice el ejercicio (31 de diciembre), afectará a todos los ejercicios, y tendrá efectividad a partir del 1 de enero del año siguiente al de la comunicación.

Quinta. Normativa reguladora.

La aplicación de los tributos conveniados con la DFA, se ajustarán a lo previsto en:

- a. Norma Foral 41/1989, de 19 de julio, reguladora de las Haciendas Locales.
- b. Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero, General Tributaria de Álava.
- c. Por las Ordenanzas Fiscales aprobadas por el Ayuntamiento.
- d. Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de régimen jurídico de las Administraciones Públicas y del procedimiento administrativo común.



e. Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, datu pertsonalak babestekoa, eta garapen arauak.

f. Zergak ikuskatzeko Arautegia.

g. Lankidetzeta hitzarmen hau.

e. Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de protección de datos de carácter personal y normas de desarrollo.

f. Por el Reglamento de Inspección de Tributos.

g. Por el presente convenio de colaboración.

Seigarrena. Administrazio elektronikoa.

Zergak ikuskatzeko, AFAk informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiliko ditu.

Lagatako funtzioen eremuan, herritarrei bermatuko zaie ekainaren 22ko 11/2007 Legeak, herritarrek zerbitzu publikoak sarbide elektronikoa bidez eskuratzekoak, 6 artikuluan jasotako eskubideak eta, bereziki, administrazioekin bide elektronikoa erabiliz erlazionatzeko eskubidea, betiere azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearenak, 35. artikuluan ezarritako eskubideak baliatzeko, bai eta informazioak lortzeko, kontsultak eta alegazioak egiteko, eskaerak aurkezteko, adostasuna adierazteko, asmoak adierazteko eta ebazpenen eta administrazio egintzen kontra agertzeko ere.

Zazpigarrena. Informazioaren trukea.

Aurreko hirugarren klausulan azaldutako funtzioak betetzeko, udalak informazioa aldizka-aldizka igorriko du baliabide informatiko edo telematikoak erabiliz.

U

dalak igorritako datuak zergadunek eta informazioa ematera behartutako gainerako pertsonak adierazitakoak izango dira eta, oro har, automatizatu aurretik, datu horiek ez dira egiaztatuko. Hala eta guztiz ere, udalak datuak egiaztatu baldin baditu, egiaztatu beharreko datuak eman beharko dira.

Sexta. Administración Electrónica.

Para la inspección de los tributos, la DFA hará uso de tecnologías de la información y la comunicación.

En el ámbito de las funciones cedidas, se garantizará a la ciudadanía los derechos recogidos en el artículo 6 de la Ley 11/2007, de 22 de junio, de acceso electrónico de los ciudadanos a los Servicios Públicos, y, en particular, el derecho a relacionarse con las Administraciones utilizando medios electrónicos para el ejercicio de los derechos previstos en el artículo 35 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, así como para obtener informaciones, realizar consultas y alegaciones, formular solicitudes, manifestar consentimiento, establecer pretensiones y oponerse a las resoluciones y actos administrativos

Séptima. Intercambio de información.

Para el cumplimiento de las funciones descritas en la Cláusula Tercera anterior, el Ayuntamiento realizará envíos periódicos de información por medios informáticos o telemáticos.

Los datos enviados por el Ayuntamiento serán los declarados por los obligados tributarios y demás personas obligadas a suministrar información, sin que, con carácter general, hayan sido sometidos a actividad alguna de verificación previa a su automatización. No obstante, cuando los citados datos hubieran sido objeto de



Beharrezkoa izango da udalak igortzea AFak behar duen informazio guztia, dagokion zerga ikuskapena eraginkortasunez aplikatu ahal izateko, bai eta zerga iruzurra prebenitzeko eta hari aurre egiteko ere.

Zortzigarrena. Datu pertsonalak babestea.

Hitzarmen honetan ezarritako zereginak baliatzeko:

a) Ematen diren datuen kontrolerako eta segurtasunerako honako hauetan xedatutakoa aplikatuko da: Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa; 15/1999 Lege Organikoa garatu duen Arautegia (abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuak onartu duena); Arabako Foru Aldundiaren izaera pertsonaleko datuen fitxategiak arautzen dituen maiatzaren 30eko 40/2006 Foru Dekretua; maiatzaren 22ko Diputatuen Kontseiluaren 480/2007 Erabakia (Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren fitxategien segurtasunerako egitura funtzionala onartu duena), eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren segurtasun agiriak.

b) Datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko eta horiek aldatzea, galtzea, tratatzea edo horietara baimenik gabe sartzea ekiditeko behar diren neurri tekniko eta antolakuntzazko guztiak hartuko dira.

Hitzarmen hau betearaztean udalaren eta AFaren artean egin beharreko jakinarazpenei eta informazio trukeei begira, bi alderdiek segurtasun protokolo bat beteko dute, datuak modu seguruan jakinaraziko direla bermatzeko; era berean, bakoitzak

comprobación por el Ayuntamiento, se facilitarán los datos comprobados.

Será necesario el envío por parte del Ayuntamiento de toda la información que requiera la DFA para la efectiva aplicación de los tributos cuya inspección tenga encomendada, así como para hacer efectiva su labor de prevenir y combatir el fraude tributario.

Octava. Protección de datos de carácter personal.

En el ejercicio de las funciones previstas en el presente Convenio:

a) El control y seguridad de los datos suministrados se regirá por lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, en el Reglamento de desarrollo de la Ley Orgánica 15/1999, aprobado por Real Decreto 1720/2007, de 21 de diciembre y en el Decreto Foral 40/2006, de 30 de mayo, que regula los ficheros de datos de carácter personal de la DFA y en el Acuerdo 480/2007, del Consejo de Diputados de 22 de mayo, que aprueba la estructura funcional para la seguridad de los ficheros y en los documentos de seguridad del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos.

b) Se adoptarán todas aquellas medidas de carácter técnico y organizativo que resulten necesarias para garantizar la seguridad de los datos de carácter personal, así como para evitar su alteración, pérdida, tratamiento o acceso no autorizado.

Para las comunicaciones e intercambios de información que sea preciso realizar entre el Ayuntamiento y la DFA en ejecución de este Convenio, ambas partes se obligan a cumplir con un protocolo de seguridad que garantice que la comunicación de los datos se realice de



gordetzen dituen fitxategien arduradunak direnez gero, beharrezko zeregin eta betebeharrak hartuko dituzte beren gain, segurtasuna ziurtatzeko. Bereziki, honako konpromiso hauek hartzen dituzte:

- a) Informazio hau ez erabiltzea arestian azaldutakoaz bestaldeko helburu batekin.
- b) Informazio hori transferitzeko ezarritako beharkizun guzti-guztiak betetzea.
- c) Datuen babesaren inguruan indarrean dagoen legeria betetzea.
- d) Datuen segurtasuna bermatzeko eta haien aldaketa, galera, tratamendua edo baimenik gabeko eskuragarritasuna saihesteko behar diren neurri teknologiko eta antolakuntzazkoak hartzea.
- e) Datuen kalitateari buruzko printzipioa betetzea (DBLOren 4. artikulua).

Udalak AFArekiko jakinarazpenak aktibo mantentzeko konpromisoa hartzen du bere gain, kasu bakoitzerako zehaztutako prozedurak eta mekanismoak erabiliz.

Bederatzigarrena. Koordinazio eta jarraipen batzordea.

Koordinazio eta jarraipen batzorde bat sortuko da. Batzorde hori osatuko dutenak honakoak izango dira: AFaren Ogasun, Finantza eta Aurrekontu diputatuak izendatutako bi ordezkari eta udalak izendatutako beste bi. Halaber, beharrezkotzat jotzen den beste edozein funtzionariok ere parte hartu ahal izango du, aholkulari. Hitza izango dute, baina botorik ez.

Batzordeak hitzarmen hau gauzatzeko beharrezkoak diren jarduerak koordinatuko ditu, eta haien ikuskapen, jarraipen eta kontrol lana egingo du. Bereziki, batzorde honen eskumena honakoa izango da:

1. Hitzarmen honen hirugarren

forma segura, y a asumir las funciones y obligaciones generadas al respecto como responsables de los ficheros que cada parte custodia. En particular, se comprometen a:

- a) No utilizar esta información con otra finalidad que la expuesta con anterioridad.
- b) A cumplir con los requerimientos estipulados para la transferencia de dicha información.
- c) A cumplir la normativa en vigor en materia de protección de datos.
- d) A adoptar las medidas de índole técnica y organizativa que se precisen para garantizar la seguridad de los datos, así como para evitar su alteración, pérdida, tratamiento o acceso no autorizado.
- e) A cumplir con el principio de calidad de los datos (Artículo. 4 de la LOPD).

El Ayuntamiento asume el compromiso de mantener activas las comunicaciones con la DFA utilizando los procedimientos y mecanismos definidos para cada caso.

Novena. Comisión de Coordinación y Seguimiento.

Se creará una Comisión de Coordinación y Seguimiento compuesta por dos representantes nombrados por el Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos de la DFA y otros dos representantes nombrados por el Ayuntamiento. En calidad de asesores, podrán incorporarse cualesquiera otros funcionarios que se considere necesario, con derecho a voz pero sin voto.

Dicha Comisión coordinará las actividades necesarias para la ejecución del presente Convenio, y llevará a cabo su supervisión, seguimiento y control. En particular, será competencia de esta Comisión:

1. Actualizar, y sustituir por otros



klausulan lankidetzarako araututako zereginak eguneratzea, beste eduki baliokide batzuen ordeztatzea edo ezabatzea.

2. Prozedurarik eraginkorrenak ezartzea hitzarmen honetan aurreikusten den informazio trukea ahalbidetzeko.

